

CASTRO VALNERA (LUNADA)

URRIAK 23

Castro Valnera edo Castru Valnera kantabriar mendilerroaren ekialdeko ertzan aurkitzen da, Pasiega mendietan edo Pas mendiak bezala ere ezagunak diren moduan. Estacas de Trueba eta Lunada portuen (edo "portillos" bertan ezagunak diren bezala) artean kokatuta dago. Hegoaldeko partea Las Merindades herrigunean barnean sartuta dago, Burgoseko probintzian, Castilla Leonen; iparra, berriz, Valles Pasiegos Kantabriako komarkan barna sartuta dago.

1718 metrotako garaiera ekialderuntz ez du parerik, Kantabriar medilerroan Nafarroako Pirineoak arte. Iparraldeko magaletan glaziarrek utzitako formak ikus ditzazkegu, hauek Kuaternariokoak izanik (Würm) eta Espainia mailan altuera baxuenetakoak izanik ere. Ipar-ekialdean, Luanadako Portuan, Miera ibaia jaio egiten da, ipar-mendebaldean berriz, Pandillo ibaia.



Mendikatearen hego-mendebaldeko aurpegian, Trueba ibaia jaio egiten da.

.Irteera ordua: 7:00etan Estadioko atetik. Itzulera 20:00etan Gasteizen


Zailtasuna: Lunadako mendikatean ez dira berezko zailtasun teknikorik desnibela izan ezik. Mendi baxuak dira (1500-1700 metrotakoak) eta forma leunekoak. Egunean zehar 900-1000 metro desnivel artean egingo ditugu.

Ibilbidea: Lunada eski estaziotik hasiko dugu ibilbidea 1155 metrotako garaieran Burgos eta Kantabriako mugan kokatuta dagoela. Bertatik Pico de la Miel gertuko mendia igoko dugu lehenik eta behin. Goian gaudela inguruko bailaren ikuspegiak gozatu ahalko dugu.

Jarraitzeko, altuera pixka bat galdu beharko dugu Bernacho bailararantz jeitsiz. Hemendik Valnera mendien krestak hartuko ditugu goruntz, Castro Valnerarantz abiatuz.

Ikuspegiak eta hamaietakoaz gozatu eta gero Bernachoruntz beherako bidean abiatuko gara. Bertan autobusa izango dugu gure zain.

Lurzorua:: Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arrokako, basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.



Erritmoa eta ordutegiak: Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldidune egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta

luzeago bat bazkaltzeko.

Beharrezko materiala:

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak “eginak” sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

Zuen gidak

Ibai Rico: Geografoa, glaziologoa eta geografi irakaslea UPVn Patagonian, Artikoan eta Himalayan ikertzen ibili da. Alpinista eta eskalatzailea hainbat mendikate bisitatu ditu, baita pirineoak puntarik punta HRPtik zeharkatu ere. Alpeetan, Kilimanjaron, Kaucacon, Norbegian eta Atlasean izan da lanean beste batzuen artean.

Unai García: Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendietatik.